

**2012KO APIRILAREN 26AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO  
BATZARRALDIAREN AKTA.**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hogeita seia.

**HILABETEA:** Apirila.

**URTEA:** Bi mila eta hamabi.

**HASIERAKO ORDUA:** Arratsaldeko zazpiak.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa.

**DEIALDIA:** Lehena.

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17)

**UDALBURUA:** Koldo Agirre Mujika

**BILDUAK:**

- M<sup>a</sup> Mar Celaya Gonzalez
- Aitor Larburu Izaguirre
- Asier Sarriegui Zumarraga
- Iñaki Saldaña Herrero
- Aitor Aldasoro Iturbe
- M<sup>a</sup> Luisa Valles Fernandez
- Leire Artola Ugalde
- Iñigo Arrese Artabe
- Encarna Arrieta Telleria
- Eva Diaz del Rio
- Alfonso Segade Gonzalez
- Ana María Crespo Blanco
- Josi Insausti Mujika
- Julio Herreros Serna
- Unai Baztarrika Otegi

**ETORRI GABEAK:** Cecilia Herrador Garin

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa, kontuhartzaileak ere parte hartzen du.

**1.- AURREKO AKTA.** 2012ko martxoaren 15eko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute.

## **2.- ORMAKekin HITZARMENA.**

Alkate jaunak esan du, puntu hau gai-zerrendatik erretiratu egiten duela. Beraz, mahai gainean gelditu da.

**3.- EUSKO JAURLARITZAREKIN HITZARMENA.** Mariaratseko etxebizitzetarako dagokienean hitzarmena bertan behera uztea.

Alkate jaunak proposamenaren berri eman du:

***“Gaia: Eusko Jaurlaritzarekin egindako hitzarmena babestutako etxebizitzak sustatzeko programa, 1 esparruko UE 1.1 Birgaitze Integratuko eremuari, Mariarats, 42 areari eta Ugartemendi 3, Sektoreari.***

### **AURREKARIAK**

2008ko azaroaren 5eko datarekin, Beasaingo Udalak Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena sinatu zuen goian aipatutako gaiari buruz.

Hitzarmenaren laugarren aurrekarietan ondorengoa dio:

***“Era berean, 1 Esparruko UE 1.1 Birgaitze Integratuko Eremuan hirigintza-kudeaketa erraztea eta sustatzea bidezkoz hartzen dute, AU 42 Mariarats eremuan sustatutako diren etxebizitzak guztien esleipen-prozedura arrunta kenduta, eta horiek gordeta, birgaitze-lanak egiten diren bitartean beren etxebizitzak aldi baterako utzi behar dituzten legezko okupatzaileei birkokapena bermatzeko.”***

Aldi berean, bosgarren klausulan ondorengoa adierazten du:

***“Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak konpromisoa hartu du AU 42 Mariarats eremuan babestuta alokatzeko gizarte-etxebizitzaren erregimen juridiko eta ekonomikoko babestutako 38 etxebizitza sustatzearekin lotutako eraikuntzako eta hirigintzako lanak guztiz gauzatzeko.***

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak sustapen honetako etxebizitza guztiak esleipen-prozedura arruntetik kanpo uzteko konpromisoa hartu du, 1 Esparruko UE 1.1 Birgaitze Integratuko Eremuaren hirigintza-kudeaketa gauzatu den bitartean aldi baterako etxebizitzak utzi behar duten etxebizitzaren legezko okupatzaileek behin-behineko birkokapenerako duten eskubidea bermatzeko.

Era berean, etxebizitzaren eta lurzoruen arloan babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta finantza-neurriei buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuan

*etxebizitzaren esleipenari buruz ezartzen den araudia birgaitze-lan horien eraginpekoen aplikatzeko konpromisoa hartu du Sail horrek.*

*Birkokapenerako eskubide hori ziurtatzeko eta etxebizitzaren esleipenak gauzatzeko behar den dokumentazioa Beasaingo Udalak aurkeztu beharko du Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gipuzkoako Lurralde Bulegoan.*

*Behin birgaitze-lanak eta aldi baterako utzarazteak, behin-behineko birkokapenak eta birgaitutako etxebizitzetara itzultzeak amaitu direnean, etxebizitzak Beasaingo udalerrian dauden eskaerak estaltzeko erabiliko dira, eta etxebizitzarik soberan geratzen bada, Eskualde Egiturako eskaerak betetzeko erabiliko dira.”*

*2012ko apirilaren 16an, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren idatzia jaso da, Udalari eskatuz aipatutako birkokapenaren beharra dagoen erantzuteko eta 2012ko martxoaren 19ko Aginduaren berri emanez, Mariaratsko 38 etxebizitza sozialak esleitzeko.*

*Birgaitze Integratuko Planean aurreikusitako erreformak burutu dira eta epe motzera eta ertainera birkokatzeko beharra sortzen duten obrak ez daude.*

*Horren ondorioz, Hirigintza Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:*

**Lehenik.** *Baliorik gabe uztea, babestutako etxebizitzak sustatzeko programa, 1 esparruko UE 1.1 Birgaitze Integratuko eremuari, Mariarats, 42 areari eta Ugartemendi 3, Sektoreari buruz Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmenaren laugarren aurrekariaren laugarren lerrokada nahiz bosgarren klausula.*

**Bigarren.** *Eusko Jaurlaritzari erabaki honen berri ematea, Mariaratsko 38 etxebizitza sozialak esleitu ahal izateko.”*

*Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.*

*Bozketa eginda, aho batez onartu da.*

**4.- LORRATZ ELKARTEAREKIN KONTRATUA.** *Ingurune irekiko programa eta eskuhartze programari buruzko kontratua luzatzea.*

*Alkate jaunak proposamenaren berri eman du:*

**“AURREKARIAK**

1.- 2011ko azaroaren 22ko datarekin LORRATZ ELKARTEAK, Beasaingo Udalari prestatzen dion zerbitzu bakoitzaren prezioa, Gipuzkoako esku-hartze sozialarekiko hitzarmenari egokitzea eskatzen dio.

2.- 2012ko otsailaren 29an egindako gizarte-ongizate batzordeak, 2012ko urtarrilaren 11ko txosten teknikoaren arabera, adierazi zuen ez dela bidezkoa Udal honekin entitate horrek sinatuta duen kontratua aldatzea prezioaren igoera aurreikusiz, Baldintza Pleguaren arabera, prezioa, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren Kontsumoen Índize Prezioaren arabera eguneratuko delako. Beraz, enpresari dagokio baloratzea 2012rako kontratu berria sinatu behar duen ala ez, egungo baldintzak mantenduz.

3.- Guzti honen berri LORRATZ ELKARTEARI ematen zaio 2012ko martxoaren 1 datarekin, eta 2012-03-2012ko erregistro data duen idatzian kontratua bertan behera uztea eskatu du.

4.- Udalak ingurune irekiko programa eta esku-hartze familiarra programa ematen jarraitzeko interesa duenez, baldintza plegua eta lizitazioa egin behar dira dagokion esleipena egin ahal izateko. Aipatutako izapideak egiteko bere denbora behar duenez, zentzuzkoa da gaur egungo kontratua luzatzea kontratazio berriaren prozedura amaitu arte, 2012-01-01 atzera eraginezko efektu eta KPIren igoerarekin.

Horren ondorioz , Gizarte Ongizate Batzordeak ondorengo PROPOSAMENA egiten dio Udalbatza Osoari:

LORRATZ ELKARTEari kontratua luzatzea 2012-01-01 atzera eraginezko efektu eta KPIren igoerarekin, ingurune irekiko programa eta esku-hartze programaren esleipen berria egin arte.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte proposamenarekiko:

Josi Insausti jaunak (H1): “Gai hau gizarte-ongizate batzordean eztabaidatu da baina zerbait esan baino lehen argitu behar da Lorratz Elkartearen eginkizuna zein den. Cuando hablamos de medio abierto estamos hablando de educadores de calle y la intervención familiar se refiere al servicio que se presta a menores en situación desprotección en el ámbito familiar. Beasainen gutxi gora behera 24 haur eta nerabe ditugu egoera horietan. Gaur egiten den proposamen honekin alde positiboak ez ditut garbi ikusten, baina zeintzuk diren arriskuak bai. El riesgo es el siguiente: la no asunción del convenio colectivo firmado en Gipuzkoa posterior a la adjudicación de estos servicios conlleva el que nos podamos encontrar en situación de riesgo por la inestabilidad de los trabajadores. El personal técnico que tienen como referente los menores y sus familias, puede dejar de serlo y hasta que se resuelva el concurso la calidad del servicio puede mermar considerablemente. Este es uno de los riesgos que hemos valorado seriamente en la comisión.

Me sorprende una cuestión y es que estamos hablando de no aceptar la solicitud que hace Lorratz, que es la de aplicar un convenio de intervención social, y que afecta directamente a los trabajadores. Me sorprende porque en Diputación, BILDU ha mantenido una postura distinta a la que hoy aquí se propone. En Diputación se ha asumido el convenio de intervención social sin tener que sacar a concurso y en cambio aquí se propone lo contrario. Es más, el propio diputado de política social en su comparecencia en las Juntas Generales, una de las cuestiones en las que hizo especial hincapié es que se asumía ese convenio y el procedimiento que es establecía para ello también lo ponían en marcha. Lo que yo propongo es que se regularice el contrato con carácter retroactivo, no se entre en el proceso de concurso y se aplique la misma fórmula y el procedimiento legal que se ha establecido por parte de BILDU en la Diputación de Gipuzkoa para que no nos veamos afectados, ya que resolviendo este concurso, y convocando uno nuevo nos presentamos en noviembre-diciembre. Si ya la asociación tiene dificultad en resolver la demanda de los trabajadores, en noviembre fijaros en la situación en la que nos podemos encontrar, porque de enero a noviembre son bastantes meses de irregularidad si la asociación no aplica el convenio a sus trabajadores. Por lo tanto, algún procedimiento tiene que haber cuando la Diputación lo resuelve sin sacar a concurso.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Nik horri gehitzeko dudan bakarra da; Beasaingo Udalak aurrekontuetan aurreikusita duela horrek suposatuko lukeen dirua. Aurreikusita badago, hortik behera geratu behar gara?. Nik pentsatzen dut legezko euskarriak egongo direla eta bestela horretarako dago politika. Guk talde bezala, ados gaude H1eko ordezkariak egindako proposamenarekin, batez ere langile horien minimoak bermatzeko.”

Iñaki Saldaña jaunak (BILDU): “Se ha debatido en comisión y nuestra postura es la de no aplicar ese convenio, ya que dicho convenio nos cuesta un sacrificio importante.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “No entiendo por qué supone un sacrificio cuando va a haber trabajadores que no lleguen al mínimo que dice el convenio de aplicación, a menos que el servicio que estemos recibiendo no sea el correcto. El sacrificio puede ser económico, pero ya está previsto en el presupuesto. Iñaki no es la primera vez que estás en este Ayuntamiento defendiendo los derechos de los trabajadores. Me asombra que siendo de un partido de izquierdas y vanagloriándote de ello, ahora propongas otra cosa.”

Iñaki Saldaña jaunak (BILDU): “Creo que en comisión se ha debatido hasta la saciedad y lo que se propone se acepta o se deniega.”

Malu Vallés andreak (EAJ): “Supone un sacrificio económico, pero acaso la licitación que se prevé, ¿no va a contemplar ese incremento de convenio?. Si

se va a contemplar ese incremento, ¿dónde está ese sacrificio económico?. Es algo que no he logrado entender en los cuatro meses que llevamos debatiendo y sigo sin entender. “

Iñaki Saldaña jaunak (BILDU): “En la comisión lo hemos debatido ampliamente, haciendo referencia a otras empresas con las que el Ayuntamiento tiene formalizados contratos y hemos decidido que no vamos a hacer distinciones entre unas y otras.”

Malu Vallés andreak ((EAJ): “No se pretende hacer ninguna distinción. Lo que se pretende es que a unos trabajadores que se les aplica un convenio, se les aplique en su totalidad, sobre todo cuando no implica un incremento económico respecto de lo presupuestado ni la creación de nueva partida presupuestaria.”

Josi Insausti jaunak (H1): “Nik proposamena mahai-gainean jartzen dut bozkatzeko.

Iñaki, con todo lo que hemos discutido en comisión me sorprende lo que has dicho, es decir, la no aplicación del convenio por el sacrificio que supone. Pero todavía me sorprende más cuando tu mismo al tomar parte en el sindicato que militas, has sido promotor de este convenio. Yo solo pongo encima de la mesa que Diputación gobernado por BILDU, en la comparecencia en Juntas Generales, asume el convenio de intervención social, sin entrar en los procedimientos que aquí se establecen. Yo lo que propongo es que se haga exactamente lo mismo que se ha hecho en Diputación, porque así lo propusisteis vosotros.”

Alkate jaunak (EAJ): “Yo creo que Iñaki está partiendo de lo que marca el informe del técnico de bienestar social.”

Ana M<sup>a</sup> Crespo andreak (PSE-EE/PSOE): “Yo me remito a lo dictaminado en la comisión de bienestar social y al informe técnico que dice que *“no procede efectuar una modificación del contrato que esa entidad tiene suscrito con el Ayuntamiento para incrementar el precio, dado que en el pliego de condiciones se establece que el precio se incrementará con arreglo al IPC de la CC AA del País Vasco.”*. Nosotros estamos de acuerdo con la propuesta en base al informe técnico.”

Une honetan publikoan dagoen pertsona batek hitza eskatu dio Alkateari eta honek eman egin dio nahiz eta Alkateak berak aitortu, jakin badakiela zinegotziak ez direnei, eskaera eta galderetan bakarrik hitza ematea dagoela.

Publikoan dagoen pertsonak esan du, gizarte-ongizate batzordean parte hartzen duela eta batzordearen proposamena, txosten teknikoa kontutan hartuta eman zela.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (BILDU, PSE-EE/PSOE, PP, NAHIA)

Aurkako botoak: 7 (EAJ, H1)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da gizarte-ongizate batzordearen proposamena.

**5.- INBENTARIOA.** 2011ko abenduaren 31ko eraginarekin inbentarioa eguneratzea.

Alkate jaunak ezagutzera eman du, hazienda batzordearen proposamena:

“2.011ko abenduaren 31ko datarekin egindako Inbentarioaren zuzenketa onartzea proposatzen dio Hazienda Batzordeak Udalbatzari:

#### UDALA

	<b>Erre.Histo.Kos</b>	<b>Erre.Meta.Amo.</b>	<b>Neto Kontablea</b>
<b>ONDASUN HIGIEZINAK</b>	<b>51.604.337,29 €</b>	<b>4.569.549,33 €</b>	<b>47.034.787,96 €</b>
ERAIKUNTZAK	18.474.798,57 €	4.051.868,31 €	14.422.930,26 €
TERRENOAK	6.082.773,50 €		6.082.773,50 €
JOLASTOKIAK	4.800.881,05 €		4.800.881,05 €
BIALAK	20.331.588,15 €		20.331.588,15 €
LANDA FINKAK	€ 30.343,61		€ 30.343,61
AZPIEGITURA	1.883.952,41 €	517.681,02 €	1.366.271,39 €
<b>ERRENTA ESKUBIDEAK</b>	<b>€ 1.251.408,23</b>		<b>€ 1.251.408,23</b>
<b>BALORE MOBILIARIOAK</b>	<b>€ 11.608.709,22</b>		<b>€ 11.608.709,22</b>
<b>IBILGAILUAK</b>	<b>€ 149.676,71</b>	<b>97.877,22 €</b>	<b>51.799,49 €</b>

<b>MOBLERIA</b>	2.632.108,78 €	1.902.176,74 €	729.932,04 €
<b>ONDASUN ETA ESKUBIDE BIHUR.</b>	1.093.027,00 €	6.521,42 €	1.086.505,58 €
<b>GUZTIRA</b>	68.339.267,23 €	6.576.124,71 €	61.763.142,52 €
<b>ERAIKINAK ERABIL LAGAPENEAN</b>	4.219.461,67 €		4.219.461,67 €
<b>LAGAPENEAN JASOTAKO ERAIK.</b>	343.677,54 €	24.047,80 €	319.629,74 €
	72.902.406,44 €	6.600.172,51 €	66.302.233,93 €

#### KIROLDEGIA

	<i>Erre.Histo.Kos</i>	<i>Erre.Meta.Amo.</i>	<i>Neto Kontablea</i>
<b>MOBLERIA</b>	71.918,99 €	12.066,32 €	59.852,67 €
<b>BALORE MOBILIARIOAK</b>	100,00 €		100,00 €
<b>GUZTIRA</b>	72.018,99 €	12.066,32 €	59.952,67 €

#### MUSIKA ESKOLA

	<i>Erre.Histo.Kos</i>	<i>Erre.Meta.Amo.</i>	<i>Neto Kontablea</i>
<b>MOBLERIA</b>	130.180,97 €	101.623,20 €	28.557,77 €
<b>GUZTIRA</b>	130.180,97 €	101.623,20 €	28.557,77 €

#### EUSKALTEGIA



	<i>Erre.Histo.Kos</i>	<i>Erre.Meta.Amo.</i>	<i>Neto Kontablea</i>
<b>MOBLERIA</b>	€ <b>67.616,73</b>	<b>56.629,91 €</b>	<b>10.986,86 €</b>
<b>GUZTIRA</b>	€ <b>67.616,73</b>	<b>56.629,91 €</b>	<b>10.986,86 €</b>

Aldi berean ezagutzera eman dira 2010eko inbentarioarekiko diferentziak eta altak eta bajak.

	<b>Kostu historikoa 2011/ Coste Histórico 2011</b>
<b>ONDASUN HIGIEZINAK / BIENES INMUEBLES</b>	<b>51.604.337,29 €</b>
ERAIKUNTZAK / CONSTRUCCIONES	18.474.798,57 €
TERRENOAK / TERRENOS	6.082.773,50 €
JOLASTOKIAK / PARQUES	4.800.881,05 €
BIALAK / VIALES	20.331.588,15 €
LANDA FINKAK / FINCAS RUSTICAS	30.343,61 €
AZPIEGITURA / INFRAESTRUCTURA	1.883.952,41 €
<b>ERRENTA ESKUBIDEAK / DERECHOS REALES</b>	<b>1.251.408,23 €</b>
<b>BALORE MOBILIARIOAK / VALORES MOBILIARIOS</b>	<b>11.608.709,22 €</b>
<b>IBILGAILUAK / VEHICULOS</b>	<b>149.676,71 €</b>
<b>MOBLERIA / MOBILIARIO</b>	<b>2.632.108,78 €</b>
<b>ONDASUN ETA ESKUBIDE BIHUR. / CONC. ADMINIS.</b>	<b>1.093.027,00 €</b>
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>68.339.267,23 €</b>
<b>ERAIKINAK ERABIL LAGAPENEAN / INMUEBLES CEDIDOS</b>	<b>4.219.461,67 €</b>
<b>LAGAPENEAN JASOTAKO ERAIK. / INM. RECIBIDOS EN CESION</b>	<b>343.677,54 €</b>
	<b>72.902.406,44 €</b>

ALTAK	
-------	--

Hurtzaindegiko lokala/Local guardería (Igartza Oleta, 12-letra C, bajo)		277.535,00 €
Udal bulegoak egokitzea/Adecua depend. munic.(Personal/Antolakuntza)		237.551,57 €
Igartzako presaren erakustokia/Espacio expositivo presa Igartza		370.137,51 €
Done Jakue bideko aterpetxea/Albergue Camino Santiago		122.994,86 €
<b>ERAIKUNTZAK / CONSTRUCCIONES</b>		<b>1.008.218,94 €</b>

<b>BAJAK</b>		
7. Sektoreko birtzatik. Aldaketa/Modificación reparcelación Sector 7	-	335.337,96 €
8. Sektorea B1 lursail. baloraz. zuz/Rectif. valorac. terreno B1 S. 8 (IVA)	-	67.067,19 €
<b>TERRENOAK</b>	-	<b>402.405,15 €</b>

<b>BAJAK</b>		
Kale Nagusia oineztatzea/ Peatonalizac. Kale Nagusia (rectif. Valor cámaras)	-	33.543,06 €
<b>BIALAK / VIALES</b>	-	<b>33.543,06 €</b>

<b>ALTAK</b>		
Arangoitira igogailua/Ascensor Arangoiti		153.562,20 €
Trafiko kontrol. kamarak/Cámaras control tráfico. Kale Nagusia-Nafarroa Etorbidea		135.810,47 €
<b>AZPIEGITURAK / INFRAESTRUCTURAS</b>		<b>289.372,67 €</b>

<b>BAJAK</b>		
Garbiketako ibilgailua/Vehículo limpieza Nissan 1273-BPV	-	15.596,76 €
<b>IBILGAILUAK / VEHICULOS</b>	-	<b>15.596,76 €</b>

<b>ALTAK</b>		
3 fotokopiagailu / 3 fotocopadoras		11.587,73 €
Done Jakue bideko aterpetxeko altzariak/Mob. albergue Camino Santiago		22.531,58 €
Igartza Jauregiko altzariak/Mobiliario Palacio Igartza		36.231,56 €
Bulegoetako altzariak/Mobiliario oficinas		104.974,36 €
Marquesinak Trenbide y Zaldizurreta		17.114,30 €
Informatika ekipamendua/Equipamiento informático		3.079,80 €
Igartzako argiteria eta ekipamendua/Iluminación, megafonía y equipamiento Igartza		86.482,99 €
Udal zerbitzuetako beste altzariak/Otro inmovilizado servicios municipales		6.518,63 €
<b>BAJAK</b>		
Fotokopiagailuen baja/Baja fotocopadoras	-	9.360,26 €
Igartzako errotako galdara/ Caldera molino Igartza	-	5.117,60 €
Udaltzaingoa alcotest Policía Municipal	-	1.616,72 €
Zerbitzuetako erremintak /Baja Herramientas servicios	-	1.737,77 €

Igartzako altzariak /Mobiliario Igartza	-	18.289,61 €
Bulegoetako altzari eta makineria /Mobiliario y maquinaria oficinas	-	23.229,71 €
Belengo kaperko informatik ekipoa/Equipamiento informático capilla Belén	-	5.835,40 €
Zerbitzuetako irratit-telefonoak/Radioteléfonos Servicios	-	5.024,40 €
<b>ALTZARIAK / MOBILIARIO</b>		<b>218.309,48 €</b>

Hiz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda aho batez onartu da hazienda batzordeko proposamena.

### **6.- ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN ZERGAN HOBARIA.**

Aurtzaka taldeak eskatutako hobaria.

Alkate jaunak hazienda batzordeko proposamenaren berri eman du:

*“Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga erregulatzen duen Udal Ordenantzak ondorengo hobaria jasotzen du:*

*%95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak eta obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean, etxebizitza babestuak barne, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena eta hobariaren ehunekoak Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.*

*Hazienda Batzordearen iritziz, goian aipatutako interes bereziko eta udal onurako zirkunstantzia kulturalak betetzen dira eta beraz, Udalbatzari ondorengo akordioa PROPOSATZEN dio:*

*Aurtzaka Dantza Taldeari Garmendia Otaola, 7 beheko lokala egokitzeko obrek sortzen duten Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan %95eko hobaria onartzea.”*

Hiz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu da.

Horren ondorioz, bozketa eginda aho batez onartu da hazienda batzordeko proposamena.

**7.- UDAL AURREKONTUA EXEKUTATZEKO ARAUA.** Denboraldirako pertsonala kontratatzeari buruzko eranskina.

Alkate jaunak ondorengo proposamenaren berri eman du:

**“II ERANSKINA: ALDI BATERAKO PERTSONALA KONTRATATZEKO ARAUDIA (ABENDUAREN 30EKO, 20/2011 ERREGE LEGE DEKRETUAREN 3.BI ARTIKULUA).**

Aldi baterako pertsonalaren kontratazioari dagokionean, kontutan izan behar da, abenduaren 30eko, 20/2011 Errege Lege Dekretuak defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu, zerga eta finantza arloko premiazko neurriei buruzkoak ezartzen duen muga, abenduaren 22ko, 2011ko urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren 39/2010 Legean xedatutako areagotuz.

Hain zuzen ere, aipatutako Errege Lege Dekretuak ondorengo xedatzen du: “2012an ez da aldi baterako langilerik kontratatuko, ezta aldi baterako estatutupeko langilerik edo bitarteko funtzionariarik izendatuko ere, **salbuespenezko kasuetan eta premiazko behar atzeraezinak estaltzeko izan ezik; azken hauek, gainera, lehentasunezko edo funtsezko zerbitzu publikoen funtzionamenduan eragiten duten sektore, eginkizun eta kategorietara mugatuko dira.**

Aipatutako albuespenak, Hazienda eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren aurretiko eta esanbidezko baimena beharko du estatuaren eremuan.

Toki-mailan ez da xedatzen aurretiazko baimenaren beharra, baina oinarrizko izaera duen idatz-zatia izanik, eta beraz, Toki Administrazioa osatzen duten erakundeei dagokiena, Korporazio bakoitzak xedatu beharko ditu aldi baterako pertsonala kontratatzea dagozkion kasuak, Aurrekontua Gauzatzeko Oinarrietan edo barne kontrolerako Araudietan zehaztuz.

Beasaingo Udalak barne erregimenerako Araudirik ez duenez, Aurrekontua Gauzatzeko Udal Araudian xedatu beharko ditu 2012 urtean aldi baterako pertsonala kontratatzeke irizpide orokorrak, eta horietan oinarrituta Alkatearen eskumena izango da kontratazio berri bakoitzaren justifikazioa.

Horren arabera Udalak 2012 urtean aldi baterako pertsonala kontratatu ahal izango du, dagokion aurrekontu-kreditua aurreikusi ondoren, beti ere, Langileen Estatutuan xedatutakoa eta gainera 20/2011 Errege Lege Dekretuaren 3.bi artikuluko baldintzak betez, hau da:

Beharrezko zerbitzuaz gain, lehentasunezko edo funtsezko zerbitzuak izango dira, baliabide pertsonalaren ezak, herritarren beharretan eta udal zerbitzu departamentuen funtzionamenduan eragin berezia dutenak. Gainera, premiazkoak eta luzaezinak izateko xehetasun hauetako bat eman beharko da:

1.- Langilearen aurreikusitako ausentzia hilabete gainditzea eta bi langileek osatutako departamentuetan izan ezik, arlo bakoitzeko langile kopuruaren arabera, ordezkapena gutxienez bi pertsona falta direnean emango da (kasu honetan langile bat bakarrik ordezkatzeko da.

*2.- Erret Dekretu Legegilearen aurretik arloan pertsonala falta dela egiaztatuta egotea eta kontratu nahi den pertsonala kontratazio administratiboen osagarria izatea.*

*3.- Herritarren segurtasuna eta udal ondasuna arriskuan jarri dezaketen, momentu puntualetan, hala nola, jaietan, antolatutako ekintza desberdinetan, lana pilatzen denean.*

*4.- Ezinbesteko kasuetan, gerora sortutako arrazoiak direla medio, dagoen pertsonala baino gehiago behar izatea eragiten duenean.*

*Hau guztia ez da aplikatuko, Udalak irtenbidea eman duen kasuetan kontratazio laboralaren bidea erabili gabe, baina toki entitateak eman beharreko zerbitzuari erantzuna eman zaionean”.*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, ondorengo iritziak azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “Es un problema del gobierno municipal, pero no veo ninguna ilegalidad en el documento. Me voy a abstener.”

Horren ondorioz, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 15 (BILDU, EAJ, PSE-EE/PSOE, H1, NAHIA)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (PP)

Beraz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

**8.- MOZIOAK.** BILDUK aurkezten dituen ondorengo mozioak.

**UDAL EUSKALTEGIARI BURUZ.**

Alkate jaunak ondorengo mozioa irakurri du:

*“Azken urte hauetan udal euskaltegiek HABEren eta Eusko Jaurlaritzaren bidez jasotzen duten diru-laguntzak etengabeko murrizketa izan du. Gauza bera gertatu da alfabetatze-euskalduntzearen beste alderdi batzuetan ere hala ikasleei banatutako diru-laguntzak nola euskaltegi pribatuek jasotakoak.*

*Udal euskaltegiak, azken urte hauetan, diru-laguntza gutxiago jasotzen ari dira. Murrizketak, udal batzuetan handiak izan dira eta udalak, euskaltegi hauen biziraupena ziurtatu nahi dutelako, diru murrizketen zama bere gain hartu behar izan dute. Ondorioz, Udal bakoitzak, udal euskaltegien lana eta jarraipena ere egokitu behar izan du, erabaki propioak hartuz. Epe motzean, murrizketek jarraitzen badute, udal euskaltegien jarraipena arriskuan egon liteke.*

*Bestetik, HABEren sortze-legeak (29/1983) aitortzen dio erakunde horri helduen alfabetatze-euskalduntzea antolatzeko eskumena. Besteak beste hau dio erakundearen helburuei buruz legearen zioen adierazpenean;*

*'gara-adinekoei euskara erakusteko, herria euskalduntzea eta alfabetatzea sustatzeko, bere helburuetako ihardutze-ereei buruzko ikerketari bultz egiteko, irakaskuntza-gaiak sortu eta argitaratzeko, euskalduntze-egitarauak egitearazteko, ikasgaiak sortarazteko, euskalduntze-lanetan ari diren erakundeei laguntzeko'*

*Lege horrek berak antolatzen du euskaltegi-sarea. Horretan txertatzen dira udalen menpeko euskaltegi publikoak.*

*29/1983 legeak eta ondorengo dekretuek eta ebazpenek markatutako esparruan aritu dira HABE eta udal euskaltegiak elkarlanean. Udal euskaltegietan udalak dira titularrak, alegia, beraiek jartzen dituzte azpiegitura materialak eta ordaintzen dituzte irakasleak. HABEk irakasleen soldata ordaintzen du ezarritako parametro eta modulu batzuen arabera, besteak beste, euskaltegian izena emandako ikasle-kopuruaren arabera. Dena dela, HABEk udalei emandako diru-laguntzak ez du osorik estaltzen irakasleen kostua eta udalek beren baliabide propioetatik ordaintzen dute diferentzia.*

*Hortaz, udalek hiru modutan laguntzen dute HABE bere helburuak betetzen: irakasleen kostuaren zati bat berengain hartzen, ikasleak diruz lagunduz eta euskaltegiaren azpiegitura jarriaz.*

*Alta bada, udalen eta HABEren arteko osagarritasun hori ez da orekatua, erakundeak jokoaren arauak aldebakartasunez aldatzeko eskubidea baitu.*

*Ondorioz, udal honek, honako puntu hauetan oinarritutako adierazpena onartzen du*

*1.-Udal honek bere kezka eta ardura adierazten ditu HABEk udalekin 2010ean sinatutako udal euskaltegien finantzazio-hitzarmena alde bakarreko erabaki baten bidez apurtu izanagatik, erabaki horrek udalen gain jartzen duelako udal euskaltegiaren finantziazioaren zati handigoa, hori ez denean udalen betebeharra*

*2.- Udal honen iritzia da udal euskaltegien finantzazioa Eusko Jaurlaritzaren eta HABEren ardura dela eta beraiei dagokiela helduen euskalduntzea osorik finantzatzea.*

*3.- Udal honek Eusko Jaurlaritzari eta HABEri eskatu egiten die udal euskaltegien artean banatzen diren diru-kopuruak urtez urte emendatzen joan daitezen plan bat egin dezaten udalekin batera ahalik eta eperik txikienean udal euskaltegiek nahikoa diru-laguntza jaso dezaten ikasle-eskariari erantzuteko irakasleen kontratazioak udalentsat kosturik izan gabe.*

*4.-Beasaingo Udalak, udal euskaltegien auziari, ardura politiko osoz erantzuteko konpromisoa hartzen du helduen euskalduntze alfabetatzearen mugimenduak atzerapenik izan ez dezan, behar diren neurriak hartuz.*

*5.- Erabaki honen berri: Eusko Jaurlaritzari, HABEri, Euskalgintzari eta herri osoari emango zaio eta eragile guztiei arduraz jokatzeko eskatzen zaie."*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “No dudamos desde el grupo socialista que la moción sea interesante y que tenga sus partes buenas y menos buenas. No sé si es una cosa o la otra, pero tanto mi compañera como yo pertenecemos a ese grupo de ciudadanos de Beasain que puede ser el 51% o 54%, que no dominamos el euskera. Cuando no tenemos la posibilidad de entender lo que se está debatiendo, no podemos opinar y votamos NO.”

Julio Herreros jaunak (PP): “Hay dos lenguas oficiales en Euskadi. Por lo menos pasar todos los puntos de los plenos traducidos.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 14 (BILDU, EAJ, H1, PP, NAHIA)

Aurkako botoak: 2 (PSE-EE/PSOE)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, mozioa gehiengo absolutuarekin onartu da.

BATERAGUNE AUZIAri buruz.

Alkate jaunak, BILDU eta ARALARen mozioa irakurri du:

*“Beasaingo Bildu eta Aralarrek, Euskal Herritarren gehiengoaren ustearekin bat eginez, ez du ulertzen eta onartzen Bateragune auzian kondenatutako bost Euskal Herritar hauek kartzelan izaterik. Horregatik, Aralar udalaren ohiko jardueretatik at izan arren herrigintzan aritzeko eta Beasaini ekarpena egiteko hartua daukan konpromezua eutsita, Bildurekin batera mozioa aurkeztea erabaki dugu.*

*Pasa den martxoaren 28an, Auzitegi Gorenak, Bateragune auziaren helegitea aztertu zuen Madrilan. Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodriguez eta Sonia Jacinto hamar eta zortzi urtetako kartzela zigorrera kondenatu zituen Entzutegi Nazionalak ETAkoak izatearen akusaziopean.*

*Euskal Herrian aldaketa politiko sakonak bizi izan ditugu azken hilabeteetan. Hamarkadak iraun dituen ziklo armatua atzean utzi eta bide politiko eta demokratikoetan sakonduz etorkizun aske bat eraikitzea da herri honek desio eta erabaki duena. Atzeraezina den bide hori abian da.*

*Garai berri hauek abia arazten, zuzeneko inplikazioa izan zuten gaur egunean kartzelan dauden bost kide hauek. Herri hau, demokrazia eta bakea garatuz eta herritarren borondatea oinarritzat hartuz, eraiki behar dela aldarrikatzea da beraien jardueraren xedea. Lan politikoa egiteagatik izan ziren atxilotuak, ziklo aldaketa ekarri duen lan politikoari ekiteagatik hain zuzen ere.*

*Ez Euskal Herritarren gehiengoak, ez eta nazioarteko iritzi publikoak ere, ez du ulertzen eta onartzen, Bateragune auzian kondenatutako bost Euskal Herritar hauek kartzelan izaterik. Ez du onartzen, sortu den egoera berri honen aurrean, espainiar estatuak urrats positiborik eman gabe gelditzerik*

*Hau guztia kontutan izanik, honako erabaki hau hartzen da:*

**Udal honek, herritarren gehiengoaren eskaera kontutan hartuz, Bateragune auzian Entzutegi Nazionalak emandako ebazpena bertan behera utzi eta Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodriguez eta Sonia Jacinto aske uzteko eskaria egiten du.**

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “Este tema se encuentra en la Audiencia Nacional y el resultado de la votación de esta moción, no va a tener trascendencia. Estas cinco personas se encuentran detenidas por algo que hicieron fuera de la legalidad, con lo cual la justicia y el Estado de Derecho los mantiene en la cárcel hasta que salga la sentencia, que en su momento comunicará si son liberados o siguen en prisión.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSPOE): “Los socialistas respetamos y acatamos las decisiones judiciales. La justicia es un elemento básico en el Estado de Derecho, y por eso es tradición en nosotros este tipo de posicionamientos en este tipo de mociones, si bien es cierto que una parte importante de la ciudadanía vasca, quizás en estos momentos no entienda estas cosas, entre los que me incluyo. Por tanto, no podemos votar a favor de la moción, puesto que no nos consideramos legitimados ante la separación de poderes, para exigir a la justicia un determinado pronunciamiento, para que se agilicen los temas y no se pudran las situaciones. Votaremos en contra.”

Unai Baztarrika jaunak (NAHIA): “Gure aldetik esan, mozioaren edukiarekin bat egiten dugula, baina ez zaigu iruditu egokiena mozioa oneraino iristea.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 13 (BILDU, EAJ, H1, NAHIA)

Aurkako botoak: 3 (PSE-EE/PSOE; PP)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, mozioa gehiengo absolutuarekin onartu da.

### EUSKAL PRESO POLITIKOei buruz

Alkate jaunak, preso politikoaren senitartekoei hitza eman die, mozioa irakurri dezaten, nahiz eta Alkateak berak aitortu, jakin badakiela zinegotziak ez direnei, eskaera eta galderetan bakarrik hitza ematea dagoela.



Mozioak honela dio:

### **“EUSKAL PRESO POLITIKOEN EGOERAREN INGURUAN**

*Nahi baino urte gehiago daramagu presoek eskubideak aldarrikatzen; urteak presoek aurkako neurriek senideengan dituzten ondorio larriak salatzen; urteak, estatu espainiar zein frantsesari, beren legea betetzeko eskatzen. Oraindik, ez Madrilek, ez Parisek, ez dute egoera berriaren neurriko urratsik eman; presoek dispertsioak bere horretan dirau; senideek hamaika kilometro egiten jarraitzen dute; hamarnaka euskal presoak, 197/2006 doktrinaren ondorioz, hil arteko zigorra betetzen jarraitzen dute; eta gaixotasun larriekin dauden hainbat presoak baldintza kaxkarretan jarraitzen dute.*

*Beasainen ere sei preso politiko ditugu: Lierni Armendariz, Josetxo Zeberio, Kai Saez de Egilaz, Leire Lopez, Iban Apaolaza eta Mikel Azurmendi . Herritik oso urrun seiak. Senide eta lagunek astero ia 1.000 kilometro egin behar dituzte 40 minutuz beraiekin komunikatzeko, honek suposatzen dien sufrimendu gehigarriarekin.*

*Urtarrilaren 7ko manifestazioan 110.000 lagun bildu ginen zilegi eta ezinbestekoa den Euskal Preso Politikoen eskubideen errespetua exijitzeko, hala nola, dispertsioaren amaiera eta preso guztien Euskal Herriratzea, baita gaixotasun larriak dituzten presoak eta zigorra beteta dutenak ere askatzea exijitzeko. Gatazkaren behin betiko gainditzea nahi dugulako, gatazka beraren ondorio zuzen diren preso eta iheslariak etxera ekarri nahi ditugu gainditze prozesuan zuzenki parte hartu dezaten.*

*Nazioarteko adituen adierazpena ezin argiagoa da: “Euskal Preso Politikoen aurka aplikatzen den espetxe-politika etetea, konfrontaziorako estrategia gisa erabili da eta. Era berean honako neurri hauek hartzea amnistiaren bidean lehen urrats moduan, gatazka politikoak eragindako preso eta iheslari bat bera ere egon ez dadin”.*

*Izan ere, munduan eman diren prozesu politiko anitzetan bezala, Euskal Herrian ere preso politikoen errealitateari konponbidea eman behar zaio. Myanmarren laugarren amnistia eman berri du Gobernuak eta 651 preso askatu ditu oraingo honetan, prozesua bultzatzeko; Nazio Batuen Erakundeak txalotu egin du neurria. Hemengo prozesuan ere preso politikoak parte izan behar dute, ziklo bat behin betikoz itxeko eta etorkizunean aske egingo gaituen ziklo berria zabaltzeko.*

*Horretara, Beasaingo Udalbatzari honako puntu hauek onartzea eskatzen diogu:*

*1-Beasaingo Udalak Euskal Preso Politikoen eskubideak errespetatzea eta ezartzen zaien salbuespeneko kartzela-politika indargabetzea eskatzen du:*

*- Gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak kaleratzea.*

*- Kartzela zigorraren  $\frac{3}{4}$  beteta duten presoak kaleratzea.*

*- Isolamendua eta bakartzearekin amaitzea.*

*- De facto bizi osorako zigorra suposatzen duen 197/2006 sententzia indargabetzea eta berorren ezarpenaren ondorioz kartzela zigorra luzatua izan duten presoak kaleratzea.*

*- Dispersio politika bertan behera uztea eta euskal preso politikoak Euskal Herrira ekartzea.*

*2-Beasaingo Udalak akordio hau Eusko Jaurlaritzako Barne eta Justizia Sailari eta Frantzia eta Espainiako Barne eta Justizia Ministerioei komunikatuko die.*

*3-Honez gain, Beasaingo Udalak aldarrikapen hauek lortzeko inplikazio aktiboa hartzea erabakitzen du eta horretarako akordio hauek onartzen ditu:*

*- Beasaindarrei dei egitea, Udalaren komunikaziorako ohiko bitartekoak erabiliz, eskubide hauek errespetatzea eskatzeko hileko azken ostiraletan burutzen diren kontzentrazioetan parte hartu dezaten.*

*- Udalak, Beasaingo "Herrira"rekin batera, azken ostiraleko kontzentrazioarako dei egitea.*

*- "Euskal preso eta iheslariak etxera" lema duen banderola udaletxeko balkoian ipintzea.*

*- Udalak, herrian hartutako erabakien berri eta bultzatzen diren ekimen berrien berri ematea preso diren Beasaindar guztiei.*

*- Preso dauden Beasaindarren egoeraz ardura daitezela momentu oro, beraien eskubideak errespetatzen direla eta behar dituzten asistentzi guztiak (asistentzia juridiko, osasun asistentzia, bisitak ...) bermatzen direla ziurtatuz.*

*- Hemendik aurrera Udaletxeak argitaraturiko txosten, aldizkari eta*

*dokumentu ofizial guztietan, hala nola web orrian, euskal preso eta iheslariak etxera adierazten duen ikurra ezartzea.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “En España, no hay presos políticos. Los etarras que están en las cárceles, lo están por cometer atentados terroristas. El cese definitivo de la violencia no es argumento suficiente para con los presos, terroristas de ETA, de otorgarles indulgencia. Impulsar la reinserción individualizada si los verdugos declaran un arrepentimiento o piden perdón a las víctimas directas. Sus exigencias las tienen que dirigir a ETA, no querer que la justicia les de la razón, porque no puede haber impunidad con terrorista sen democracia. La legalidad y la justicia son fundamentales.

Mientras ETA exista no se puede hablar de reconciliación. Por lo tanto, la paz y la libertad quedan a un lado.”

Alkate jaunak esan du mozioarekin bat egiten dutela.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Funtsean bat egiten dugu aldarrikapenarekin. Presoen egoerari buruz, mozioan aipatzen diren aurreneko sei puntu horiekin bat gatoz. Hirugarren puntuan aipatzen den kanporatze moduarekin ez. Aurretik ere hainbat eskaera egon dira modu berdinekoak eta urteak damazkigu balkoietan eskegi nahi diren ikurren aurkako jarrera hartu da eta guk hori defendatzen dugu, kanporatzeko egokiena denik ez zaigulako iruditzen, nahiz eta funtsean ados egon egiten diren aldarrikapen guztiekin. Hirugarren puntua ez bada kentzen ez dugu babestuko.”

Alkate jaunak adierazi du puntu hori kentzea berari ez dagokiola eta aurkezten duenei galdetu ondoren, esan dute mantendu egiten dutela dagoen moduan.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 6 (BILDU, NAHIA)

Aurkako botoak: 10 (EAJ, PSE-EE/PSOE, H1, PP)

Abstentzioak: 0

Aldeko botoen kopurua aurkakoena baino txikiagoa denez, mozioa ez da onartu.

## **9.- ALKATEAREN EBAZPENAK.**

Ezagutzera eman dira, 2012ko martxoaren 13tik, 2012ko apirilera bitarte emandako ebazpenak.

## **10.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

### **EUSKAL HERRIKO KONTU EPAITEGAIREN TXOSTENA**

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Gai honen inguruan, gu ez gara polemika artifizialetan murgilduko. Ez gara benetako gaia desbideratu nahi duen polemikan eroriko, BILDUK ez. Kontu Epaitegiak dio irregulartasunak daudela, 2009ko kudeaketan, EAJk gobernatzen zuen legegintzaldian. Uste dugu gure obligazioa dela irregulartasun horiek nola eta zergatik gertatu diren argitzea, ez dugulako nahi Kontu Epaitegiak berriro Beasaini kontuak eskatzea. Alderdi hauetako ordezkariari dagokigu, horren berri beasaindarrei ematea, herritarren eskubidea baita, bere diruarekin politikok zer egiten dugun jakitea. Eta guztia argitu behar da, berriro kudeaketa irregularrik ez dadin gertatu. Horregatik luzatzen diegu alderdi guztiei batzorde berezi bat osatzearen beharra, Beasainen inoiz gehiago kudeaketa irregularrik gerta ez dadin. Ezer ezkutuan ez gelditzeko obligazioa dugu. Horregatik, alderdi guztiokin bilera erronda egingo dugu, batzorde bereziaren osaketa eta metodologia adosteko.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Gu ere ados gaude batzorde bat egitearekin, nahiz eta aurretik jakin nahi genuke, zein izango den epea, prozedura, noren esku geldituko den tekniko aldetik, zein profesionalak eramango duten eta zeri erantzungo dion, zeren eta Herri Kontuen Epaitegiko langileek egindako auditoria dela. Orduan, auditoria bat berriro auditatzea goaz?. Nik proposatzen dizuen da batzordeak batzorde, txosten hori Fiskalari bidaltzea. Fiskalak esango du, zein lege urratu diren edo ez. Hor argituko da eta ez da gure esku geldituko egiten diren irakurketak edo egiten ez direnak. Zuzenbidean aditua den batek berriro begiratu dezala.”

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Guk planteatzen duguna da, erabaki hori batzorde horrek hartzea.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Bai Aitor, baina hik eta nik auditatu behar dugu, guk daukagun formazioarekin, zazpi, zortzi hilabetez hemengo kontuan zuzenbidean adituak direnak begiratutakoa?. Ni ez nau gai ikusten, nola eta irakurketa politiko bat egin nahi ez bada.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Sigo en fuera de juego, pero voy a intentar coger el carril. Es cierto que hay una auditoria, es cierto que la

pedimos nosotros reiteradas veces, hasta que nos hacen caso y se audita el Ayuntamiento de Beasain, porque era de los pocos Ayuntamientos de este nivel que no se había auditado. Es cierto que lo que dice el Tribunal es que hay malas prácticas, irregularidades, pero también es cierto que en ningún momento dice que hay ilegalidades, porque si así hubiera sido iríamos directos al fiscal. Pero también es cierto que en todo ese tiempo, nadie dijo nada, excepto nosotros como el otro día se decía en una columna del periódico, que todo el mundo callaba y nadie decía nada. Se achaca al PNV, pero hay que recordar que el PNV, en los últimos cuatro años gobernó con IU y con el PP. No gobernó solo.”

PPkoek esaten dio berak ez zuela EAJrekin gobernatu eta tontakeriak esaten ari dela.

Alfonso Segade jaunak ihardetsi dio esanez, batzorde bat zuela eta batzorde horren lehendakaritza ere bai eta gainera esan daitekela zergatik.

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Pero en la anterior legislatura, también el PNV gobernó con EA y aquí hay miembros sentados de EA, de IU...Es verdad que hay una auditoria y yo no quiero ser defensor del PNV, porque para eso están ellos, pero seamos un poco objetivos. Aquel gobierno que gobernó y los que lo componían hicieron lo que hicieron, bien, mal, mejor o peor, y es lo que está auditado. Visto la auditoria, visto lo que dice el Tribunal de Cuentas, visto que no hay ilegalidades, entendemos que no vamos a auditar la propia auditoria y sinceramente no vemos una necesidad de crear una comisión de investigación. Si se propone, no lo vamos a apoyar. “

Josi Insausti jaunak (H1): “Lehengoan Ogasun Batzordean galdera batzuk eginda, harridura sortu zitzaidan, zeren eta oraindik ez zenekiten ikerketa batzordea nola eratu, baina erabakia hartuta zenuten, zeren eta komunikabideetan azaldu zenuten, udal teknikari bat horretaz arduratzen ari dela. Sorpresa izan da jakin dugunean ez dela udal teknikaria. Badirudi arkitekto aholkularia dela. Resulta que esta persona pertenece a una empresa subcontratada y la subcontratación se hizo sin tener en cuenta lo aprobado en la comisión de urbanismo. Si la objetividad es esa, me parece difícil que pueda haber una imparcialidad, cuando en el modo de contratación se ha sido parcial. Auditar lo auditado....Habrà que ver con qué objetivo y el costo que va a suponer, ya que esto también es importante. No se asume el convenio de intervención social, pero esto también tiene un coste.”

Alkate jaunak (BILDU): “Objetibitate hori izateko, erantzutekotan gustatuko litzaiguke talde guztiekin osatzea.”

Publikoan dagoen pertsona baten esanetan, gauzak ez dute ardura penalik izan behar, baizik eta helburua da jakitea oker egin dena zergatik egin

den aurrerantzean horrelakorik ez egiteko. Ikerketa batzordearen helburua ez da ardura politikoa izatea. Beste ardura mota batetaz hitz egiten da. Proposamen zabala eta malgua da eta prozedura irekia.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Prozedura irekia eta zabala esaten da, baina jartzen den oinarria da, zuzenbidearekin baino hirigintzarekin lotura duen pertsona batek esaten duena. Guri ez zaigu oso egokia iruditzen horrelako ikerketa bat egiteko. Nola eta ikerketa politiko bat egin nahi ez den, zorrotasunez begiratuko dio horretan aditua denak eta gure alderditik eskatzen duguna hain zuen ere, zorrotasuna da. Juizio batera ez da eraman nahi, baina bai juizio publiko paralelo batetara. Kontua hori da.

### 32. AREAKO ERREPARTZELAZO PROIEKTUA

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “2012. urtarriletik, Errekarte eremuko errepartzelazio proiektua erabaki baten zain dago. Hirigintza batzordean, bere garaian erabaki zen prozedura urbanistikoarekin aurrera egitea eta galdetu zitzaizun ea prest zeuden gehiengoaren erabakia onartzeko eta baietz erantzun zenuen. Jakin nahi nuke nola dagoen.

Alkate jaunak (BILDU): “Idazkariaren txostena badugu eta txosten hori aztertzen ari gara. Datorren hilabeteetan, oker ez banago, pasatu beharko da hirigintza batzordetik.

Eta tratatzeko besterik ezean bilera gaueko zortziak eta hogeita hamar minututan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.